Basque Writing 20

Euskararen esperientzia, etxetik mundura

15 urte bete ditu aurten Euskal PENek. Gure hizkuntzaren aurkako eraso gogorrenetako baten ostean sortu zen, euskaraz geneukan egunkari bakarra indarrez itxi zigutenean. Mundu osoko elkartasuna eta dozenaka talde eta lankideren elkartasuna jasotzearekin batera, galdera xume baina zorrotza ere egin ziguten: munduaren elkartasuna jasotzeaz gain, ez duzue uste zuek ere zuen PEN taldea sortu beharko zenuketela?

Esan eta egin genuen. Gure hizkuntzaren alde, adieraz-pen askatasunaren alde, hizkuntzak galtzea delako adie-razpen askatasunaren aurkako azken erasoa. Hizkuntzarik gabe, adieraz-penik ez. Geurea eraman dugu urteotan mundura, gure kultura, hizkuntza, literatura… eta mundu osokoa ekartzen ere saiatu gara, ibilbide honetan egindako lagunekin ikusi eta ikasi duguna. Jasotako elkartasuna itzultzen beren adierazpena urratuta zeukaten beste herri batzuetako idazleei.

Ez da Euskal PEN bide horretan diharduen bakarra. Gure hizkuntzarekin azken hamarkadetan egindako ibilbidearen esperientzia munduko beste herri askotara eraman dute beste hainbat lagunek, beste erakunde batzuetan. Euskara desagerraraztera tematuta zegoen erregimen baten aurrean bere burua antolatzen, klandestinoki antolatzen eta intuizio handiz eta elkarlan handiagoz hizkuntzari bultzada eman zion herria gara. Ikastolak sortu zituen, planifikazio soziolinguistetatik baino gehiago milaka gurasoren intuizio eta ekimenetik. Euskara literario eta estandarra adosteko gai izan ginen, eguneroko beharrizanetatik haratago etorkizunekoak ere aurreikusita: unibertsitatean, ospitaleetan, laborategietan eta interneten erabili ahalko zen hizkuntza.

Antolatu eta egin, nork bere esparrutik, mikrokosmosetik eremu nazionaleraino. Urratsez urrats daukagu euskara literario hori, urratsez urrats irakaskuntzatik ikerketara, artetik zientziara, azokako solasetik interneteko txatera, tabernako txantxatik mugikorreko gif-era. Gauza askotan asmatzen, eta akatsak ere eginez, baina ibilian beti. **Euskararen esperientzia deitu diogu**. Esperientzia hori mundu zabalera eraman dugu, ez inork gure bide bera egin dezan, baliagarri zaiena hartu eta euren ezaugarri eta betebeharretara egokitzeko baino.

Askok dihardute lan horretan guztian. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren ostean Hizkuntza Eskubideen Protokoloa adostu genuen bertan elkartu ginen erakundeek, gizarte zibiletik abian, PEN ere tartean zela. Garabide elkarteak urteak daramatza euskararen esperientziarekin Ameriketako eta gainontzeko kontinenteetako indigenen aktibazioan, hizkuntza berreskurapenean lan itzela egiten. Eta denak elkartzen garenean, emaitza itzela izaten da, Chiapasen maiatzean egindako bileran ikusi dugunez. *Basque Writing*-en zenbaki honetan, esperientzia horietako batzuk jaso ditugu. **Gure esker ona Garabideri,** lan itzel horregatik. Aurrerantzean ere, elkarrekin, bide luze eta oparoa egin dezagun.

Urtzi Urrutikoetxea
Basque PEN

Garabide

Hizkuntza Lankidetza

Gure herriak munduarekin partekatzeko zein esperientzia edo jardunbide bereizgarri dituen pentsatzean ezinbestean dator burura euskararen biziberritze prozesua. Euskalgintzak azken 40-50 urteetan egindako lana handia da oso, aurrerapauso nabarmenak eman ditu eta erreferente da beste herri askorentzako. Ekimen zibiletik sortu eta azpiegitura sarea oinarri duen hizkuntza biziberritze esperientzia moduan ez du pareko gehiegi. Hori dela eta, bidean pilatzen dugun jakintza altxorra da munduko hizkuntza gutxitu askorentzat, hizkuntzen galera prozesua inoiz baino biziago den garai honetan.

Helburuak

Garapenerako euskal lankidetzaren ardatz potentzialetako bat izanik, orain arte mamitu ez den kooperazio ildo bati oinarria eskaintzea da Garabideren egitekoa. Honako helburu hauek formulatzen ditugu:

· Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetza bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.

· Norabide horretan, munduko hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuetako eragileekin lankidetza proiektuak garatzea. Lankidetza proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor desberdinetan gauzatzea, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriz.

· Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskaini dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Hori guztia, beti ere kontuan izanik hizkuntzaren eta kulturaren biziberritze prozesua nahitaezko oinarria dela jasangarritasunaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren eta ekitatearen aldeko eraldaketa mugimenduetan.

Lan arloak

Hizkuntza komunitate gutxituetako eragileekin lankidetza proiektuak hitzartu eta aurrera eramatea da Garabideren lana. Hizkuntza komunitate horietan dauden beharrak identifikatu ondoren euskararen esperientziatik ekarpena egiteko, zubi lana egiten dugu euskalgintzarekin. Bestetik, **Euskal Herrira begira aktibazio eta sentsibilizazio lana** egiten dugu gizarteko alor desberdinetan (hezkuntzan, herrigintzan, enpresetan...).

garabide bidegara

Aditu Ikastaroa

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa Garabideren formazio proiekturik garrantzitsuena da, baita hizkuntzen berreskurapen arloan munduan egiten den bakarrenetarikoa ere. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearekin batera antolatuta dago eta, hizkuntza berreskurapenaren inguruan lanean ari diren herri indigenetako erakundeak indartzera bideratuta dago. Funtsean, euskal esperientziaren eta hizkuntzaren berreskurapenerako gakoen gaineko formazioa eskaintzen zaie munduko hizkuntza komunitate gutxituetako ordezkariei, ondoren beraiek euren prozesuaren protagonista izan daitezen.

Aditu Ikastaroa inflexio puntu garrantzitsu bat izan da Garabideren ibilbidean, izan ere, ezagutza teorikoak eta euskararen berreskurapen prozesua bultzatzeko arlo desberdinetan sortu diren proiektu eta esperientzia praktikoen *in situ* ezagutza konbinatzen dituen unibertsitate mailako titulu homologatu bat eskaini ahal izan dugu.

Bidaide programa

Munduko jatorrizko hiztun komunitateetan hizkuntzaren berreskurapena lantzen ari diren gizarte erakunde, pertsona, eragile publiko eta sozialen eta euskalgintzako erakundeen edo euskalgintzaren esperientzia pilatu dutenen arteko elkarlan zubia eraikitzea da programa honen helburua, Garabide bitartekari dela.

Ezaugarriak

- Bidaidetza kontzeptuan oinarritutako sistema da, herrien esperientziak partekatzean oinarritutako lankidetza sistema berria.

- Euskal Herriaren esperientziatik hizkuntza biziberritzeko estrategiak garatzeko bidaide izatearen garapen praktikoa da.

- Munduko hiztun komunitateetako eragileak eta euskalgintzako eragileak elkarlanera aktibatzen ditu.

- Sistema partekatua da, ez asistentzialista, ez du dependentzia jarrera sortzen, ez da proiektuak ordaintzean oinarritzen.

- Sistema integratua da, hainbat jardun, eragile eta ekintza uztartzen dituelako: trukeak, formazio jarraituak, bidelaguntza jarduerak eta aholkularitza.

Bidaidetza intentsiboak garatzen ari gara Kolonbiako Nasa, Mexikoko Nahuatl, Ekuadorreko Kitxua eta Guatemalako Maya Kaqchikel herriekin eta ertainak Boliviako Aimara eta Quechua, Mexikoko Maya Yucateko, Txileko Maputxe, Kurdistango Kurdu eta Ipar Afrikako Amazigh herriekin.

Dibulgazioa

Ikerketa eta Garapen arloan, sorreratik lan egin dugu euskalgintzaren esperientzia ikertu, didaktifikatu eta hedatzearen alde. Euskarak bide garrantzitsua egin du berreskurapenari dagokionez azken mende erdian baina hizkuntza minorizatu bezala etengabe aritu behar du normalizaziorantz lanean eta Garabiden ez dugu ahazten barrura begirako lan hori.

Erakundetik egiten den landa lana material didaktikoarekin elikatu eta indartzen da, ikerketa eta produkzio lanari esker. Azken 50 urtetan euskararen berreskurapenaren alde egin den lana sintetizatu eta sistematizatu dugu lau liburuxkatan -euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez- eta Aditu Tituluaren bi edizioetako ikasleen gogoetak jasotzen dituen bi dokumental ekoiztu ditugu.

Martín Hernández Alcalaf
mapudungun irakaslea

‘Itzela da hemen Euskal Herrian hizkuntzarekin egin duzuena. Eta espero dugu gure hizkuntzak ere biziberritzea, zuek egiten ari zareten bezala. Itzultzen naizenean, hemengo lezioetako bat da, aktore desberdinak, irakasleak, idazten dutenak, kantatzen dutenak, esparru guztietakoak elkartzea, koordinatzea. Urrun eta bereizita bagaude oso zaila izango da mapudungun (maputxe) biziberritzea’

‘Oso ikastaro garrantzitsua izan da. Ameriketan milaka urteko hizkuntza gutxituak ditugu, urteotan ahitzen joan gara, lozorroan egon gara. Jabetu gara zer gertatzen den, eta Garabidek eta Euskal Herriko esperientziak indarra eman digu hizkuntzaren mundu eder horrekin topo egiteko.

Hezkuntza da bide garrantzitsuetako bat, hona iritsi eta ikastola bisitatzea oso garrantzitsua izan da. Batzuetan Ekuadorren esaten ziguten oker genbiltzala hezkuntzarekin, baina nik argi ikusten nuen - seme-alabek ez zutela estatuaren hezkuntza sistema jarraitu behar, guk geure sistema autonomoa egin behar genuela. Duela ia 20 urte hasi ginen estatuaren sistemarekiko erresistentzian, bide horretan porrotean sakonduko dugulako eta Europak beti Hirugarren Mundu deituko digu’

Miguel Calapi W*ayra*
kichwa hiztuna

Gloria Puc
kakchiquel

‘Irakaslea naiz, Sumpango Sacatepequez kakchiqel hizkuntza biziberritzen. Gehien txunditu nauena, nola daramazuen bihotzean, bihotzean sentitzen duzue, bihotzetik abiatzen da, eskolan, irakaskuntzan alde guztietan. Nahiko genuke eskolan, segi gure irakaskuntza ereduarekin, gure pentsamenduak, gure bizipenak, eta irakaskuntza bihotzetik abiatzea. 3 urtetik aurrera egiten dugu, programa bat daukagu, oso ondo doakigu. Gure lehen esperientzia da kakchiqelerazko murgiltze-ereduan’

Milouda El Hankari
Rif, Alhucemas

‘Oso esperientzia aberasgarria izan da, ez gara mugatu maila teorikora eta estrategia komunak egitera, ikasi dut posible dela beste herri batetik ikastea, zuek urteotan egindakotik adibidez, eta beste kideengandik ere asko ikasi dut. Kooperazio linguistikoa niretzat zerbait berria da, lehen aldiz ikusi dut GKE bat kooperazio linguistikoan lanean, eta oso pozik nago. Gauza askok daramatzat nire herrira, corpusaren garrantzia, guk oraindik bidea dugu horretarako eta idazkuntzarako, formazioa zabaldu egin behar dugu. Eta gero pertsonekiko harremanak daude, parte hartzaile batzuek oso zati izpirituala daukate, guk ez daukagu horren-beste kosmobisioa, edo modu desberdin baten daukagu’

‘Gure komunitatean biziberritze prozesuan ari gara. Alfabetatze prozesuan hainbat ekimen egin ditugu, nasa yuwe hizkuntzan topaketak, kirol ekitaldiak eta abar. Etorkizunean gure ametsa da komunitateak nasa yuwe-z egitea berriz ere. Haurtzarotik ekiten da, espero dezagun laster, 10-15 urtean gazteak berriz ere solasaldiak izatea gure hizkuntzan. horretarako ideiak eta pertsonak elkartu behar ditugu, bizi eta senti dezan. Euskal Herrian oztopo ugari izan dituzte, baina ez dute etsi, ausardiaz egin dute bidea. Uste dut gure komunitateari, gazteei, hori falta zaiela, ez diegu transmititu indartsu izateko, gure hizkuntza indartzeko energia hori. Batetik hezkuntza tradizio-nala eman diegulako, eta horregatik nabarmenduko nuke hemengo ausardia eta nola landu duten esparru bakoitza, irakaskuntzan edo kooperatibetan esaterako’

Ana Ramos
nasa yume hiztuna

Nancy Quispe Charca
aymara

‘Telebista publikoan lan egiten dut aymara hizkuntzan. 36 hizkuntza daude Boliviako estatu plurinazionalean; aymarak euskarak baino hiztun gehiago ditu, eta are gehiago kitxuerak. Hizkuntzaren aitortzan urratsak egin dira, baina komunikazioan esaterako ez da hemengo biderik egin, irrati komunita-rioetan zentratu da, komunitate indigenetara bideratutako hedabideetan, baina nik dihardudan telebista estatalean oso leku txikia dauka aymarak. Eus-kara biziberritzen egindako joste lana nabarmenduko nuke, ikastoletan hasi eta unibertsitatera, ekonomia eta lan munduraino bultzatuz. Garabide egitas-mo horren barruan dago, militanteek bultzatuta. Dena kalkulatuta dagoela ematen du: ekonomia aurrera ateratzen duten ekintzaileak, gazteak eskoletan, ikastoletan irakaskuntza propioarekin. Horrek txunditu nau’

Elkarlanean Yucatango maiekin: hizkuntza biziberritzen

Maria Elisa Chavarrea Chim

Maia idazlea, Nekazari garapenaren kudeaketan aditua

Yazmin Novelo Montejo

Soziolinguista, maierazko komunikologoa

Popol Wuj nazio oso baten jaiotzari buruzko maien pentsamendu guztia jasotzen duen liburu bat da. Kontakizunean, existitzen denari forma emateko hitzak duen garrantzia deskribatzen da kontakizunean, baina munduaren eraikuntzarako berebiziko elementu bat ere badago: pentsamenduen batasuna "pentsatu, meditatu zutenean esan zuten. Elkar aurkitu zuten eta hitzak eta pentsamenduak batu zituzten (Popul Wuj, 26. or)

Zer esan nahi du pentsamenduen batasunak gaur egun, eta nola sortzen ditu hitzak oraindik errealitateak? Euskal eta maia herrien harremana erakusten du zer nolako errealitateak sor daitezkeen hitza elkar banatzen denean. Artikulu honetan euskararen esperientziaren sozializaziotik eta maia jakiturien batasunetik eraiki diren errealitate batzuk helarazi nahi dizkizuegu.

2001etik orain arte zortzi lider maia jaso dute formazioa Euskal Herrian Garabidek hizkuntza indigenen biziberritzeri buruzko diplomaturan; aldi horretan Garabideren laguntzak indartu zenbait komunikazio egitasmo (Tosepan 2016) eta antolakuntza kohesiorako proiektu indartu ditu (Peto eta Meridan 2017an egindako Aditu ikastaro txikiak).

Alkatearen bisita Zientzia Antropologikoaren Fakultatea

2018ko maiatzaren 26an "U *meyaj ko'olel utia'al u múuk'ankúunsal maaya t'aan*" topaketa egin zen, maieraren biziberritzean emakumearen lanari buruz. Topaketara 22 emakume etorri ziren Sanahcat, Valladolid, Tecoh, Peto, Calcehtok, Chumayel, Conkal, Sihó, Kinil, Xaya, Mani, Kopomá eta Méridatik, eta genero-ikuspegi batetik hizkuntz-aktibismotik hausnartu zen diagnostikora hurbiltzeko (nortzuk gara, zertan ari gara, zer nolako egiazko ahalduntzea dago, testuinguru patriarkala edo osagarritasuna beste ekintzaile batzuekiko harremanean). Emakumea eta hizkuntza; motak, errepresentazoiak, eta genero-irakurketak hizkuntzaren kosmobisio maiatik, haren aplikazioa aktibismoan.

2018an ikusi ziren emaitzak, lan honetara buru eta esku gehiago batu zirenean, eta hala, Beasaingo udalaren laguntzaz, 2018ko urritik 2019ko otsailera Yucatango Maieraren Hizkuntza Kudeatzaileak Formatzeko Tailerra egin zen; Campeche, Yucatan, Quintana Roo eta Belizeko 30 maiera hiztunek baino gehiagok parte hartu zuten. Tailer honetan hizkuntza ekintzailetzaren diagnostikoa eta "mapeo" bat egin zen, maieraren egoera zehaztu zuen esparruka, baita hogei urte barrura begira amets kolektibo bat eratu ere. 2018ko urrian Beasaingo alkateak Mérida bisitatu zuen, eta esperientzia-trukea egin zuten; herri horretan euskara indartzeko eta ikusarazteko duela 50 urtetik egiten ari diren hizkuntza politiken lanak bideragarriak dira Méridan maierarekin egiteko. Hala, hizkuntza biziberritzeko esperientzian formatu diren Yazmin Novelo eta Maria Elisa Chavarrea aholkulari zirela, 2019ko otsai-laren 28an Méridako udalak Kultura Maia Indartzeko Udal Institutua eratzea lortu zuen.

Aurrera begira kolaborazio lan gehiago zehaztea espero dugu. Urtzi Urrutikoetxearekin harremana izan dugu, elkarrizketa bizi baten, Yucatango Maierazko PEN talde bat sortzeko. Ekimen zerrenda hau informazio-multzo bezala ikus daiteke, edo haietan transformazio-elementua aurki liteke, zalantzarik gabe hizkuntza-kooperazioa justizia sozialeko lan bat da. Bi herrion arteko elkarlanak eragina du errealitateekiko dugun ulermenean eta haiekiko eraginean: generoa, hizkuntza, literatura eta hizkuntza politikak harreman honek positiboki ukitu dituen eremuak dira eta, zalantzarik gabe, mundua sortzeko funtziora itzultzea ahalbidetzen digu, hitza banatuz.

Emakumeen tailerra

Hizkuntza kudeatzaileen tailerra Meridan

Alkatearen bisita Meridako udaletxera

Hizkuntza Gutxietako Hiztun Gazteen 2. Topaketak

Beñat Garaio Mendizabal HIGAko zuzendaria

Uztailaren 16tik 19ra ospatu zen HIGA Gasteizko EHUko Letren Fakultatean eta Oihaneder Euskararen Etxean, duela zazpi urte antolatutako lehenengo topaketari jarraipena eman, eta pauso bat harago joateko asmoz. HIGAn aldez aurretik gonbidatutako 65 hiztun izan genituen, 32 hizkuntza komunitatetatik etorritakoak. Horiez gain, Euskal Herriko beste 70 lagunek ere parte hartu zuten topaketetako ekintza batzuetan.

HIGA Gasteizko Udaleko Gazteria eta Euskara Zerbitzuek bultzatu zuten, beste hainbat elkarte eta erakunderen laguntzarekin. Helburua laukoitza zela esan genezake: 1) Gasteizko gazteei aukera ematea beste hizkuntza gutxitu batzuetako hiztunekin batera hizkuntza biziberritzeko esperientziak ezagutzeko; 2) euskararen aldeko jarrerak eta ekintzailetza areagotzea Gasteizko gazteen artean; 3) gazte ekintzaileak soziolinguistikan eta hizkuntza politikan trebatzea, eta 4) gazte horiei aukera ematea harremanak eratzeko beste komunitate batzuetako kideekin, Garabideren hizkuntza kooperazioaren filosofia jarraituz.

Helburu horiek lortzeko honako hauek antolatu genituen: goizetan, EHUko udako ikastaroen eskaintzan zegoen ikastaro akademikoa; goizak amaitzeko, hausnarketa dinamikak, hizkuntza bakoitzaren egoera ulertu eta ondokoarekin alderatzeko, eta arratsaldeetan, HIGAren alde 'ludikoena' asetzeko, kontzertuak Oihanederren, elkar ezagutzeko dinamikak, dokumentalak eta antzekoak.

Xavier Vilak hizkuntza politika beste ikuspegi zabalago baten baitan ulertzeko proposamena egin zigun, eta 'iraultza ekolinguistikoen' eragina aipatu zuen. Sechu Sendek Galizan sortu diren ekimen arrakastatsu batzuen berri eman zigun, hizkuntzen biziberritzean egiteko modu bat transmititzearekin batera. Neus Mestres eta Òscar-Adriá Ibáñezek, Plataforma per La Llenguaren izenean, katalanaren aldeko ekintzailetzaren argilunak azaldu zizkiguten. Gemma Sanginések hizkuntza asertibitatea nola landu irakatsi zien parte-hartzaileei. Aneguria musikariak, Kepa Matxain kultur eta komunikazio eragileak eta Iñaki Artola pilotariak euskara nola bizi duten kontatu ziguten.

Eta alor akademikoari amaiera emateko, Jon Sarasuak azaldu zigun biziberritzea zein egoeretan dagoen. Argitu zuen egindako lan eskerga ospatzekoa dela, eta onerako zein txarrerako, urte erabakigarrietan gaudela.

Hausnarketa dinamikei dagokienez, lehenengo bi egunetan 32 hizkuntza gutxitu horien egoerari buruz jardun ginen, eta batik bat gazteei eragiten dien alorrei eskaini genien arreta berezia (hots, kultura, komunikabideak, hezkuntza eta esparru sozioekonomikoa). Aurreikusi zitekeen bezala, oso anitza da hizkuntza horien errealitatea, baina behin aniztasun horretaz jabetuta, parte-hartzaileak ohartu ziren partekatzen ditugun elementuak asko direla, esaterako, transmisio etenaren mehatxua, estatuaren jokabidea 'gutxiengoekiko' eta gazteen jarrera hizkuntza horiekiko.

Bigarren hausnarketa dinamiketan, aldiz, hizkuntza komunitateek etorkizunerako zehaztu beharreko helburuak jorratu genituen, batzuk aipatzearren honakoak: hizkuntzaren ofizialtasuna, erabilera areagotzea, aisialdian hizkuntza horien espazioa irabaztea, eta, bukatzeko, nortasuna-hizkuntza hitz parearen garrantzia.

Azkenengo egunean, berriz, gazteek norbanako bezala hartu beharreko 22 konpromiso zehaztu zituzten. Lehenik eta behin, gazteek euren inguruko hizkuntza erabilera bultzatzeko konpromisoa hartu zuten; bestalde, euren inguruan lider papera hartuko zutela ere adierazi zuten; hirugarrenik, norbere herri edo komunitateko kulturan edo aisialdian hizkuntza gutxitua txertatzeko hautua egin zuten; eta, azkenik, adierazi zuten beste hizkuntza gutxitu batzuetako kideekin sareak sortzeko eta mantentzeko lan egingo zutela.

Ekimen arrakastatsua izan dela iruditzen zaigu, eta, guk dakigula behintzat, gai honen inguruan egin den mundu mailako ekimen bakarra. Gainera, uste dugu esanguratsua dela Gasteizen, Euskal Herrian antolatu izana. Orain ikusi beharko da sortu berri dugun sare honek zer nolako ibilbidea egiten duen datozen urteetan, eta ea maiztasun handiagoarekin antolatzea lortzen dugun.

Koordinazioa: U. Urrutikoetxea.
Diseinua eta Maketazioa: L. Mintegi

pen@euskalpen.eus
www.euskalpen.eus

euskalpenkluba

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Euskal Herria- Basque Country

Babeslea: etxepare euskalinstitutua institutovasco basqueinstitute